

Getxoko Hiri Mugikortasun Iraunkorreko Plana

egiteko parte hartze prozesua

*Herritarrekin eta interes taldeekin egindako
jardunaldia (2017/12/19)*



Dokumentuaren egilea:



ONDORIOAK DENEN AURREAN AURKEZTEA

Jardunaldiaren azken zatian lan mahai bakoitzean landutako edukien aurkezpena egin da guztien aurrean.

1. MAHAIA: BIZIKLETA BIDEZKO MUGIKORTASUNA, OINEZKOEN MUGIKORTASUNA, INGURUMENA, BIDE SEGURTASUNA ETA HIRIGINTZA

1. mahaiaren hainbat gai jorratu dituzte, baina nabarmentzekoa da Getxon oinezkoentzako sare seguruak izateari emandako garrantzia. Hasteko, beharrezkotzat jo dute bere ibilbidean hainbat interesgune (gizarte etxeak, garraio publikoaren geltokiak, saltoki guneak...) hartuko dituen oinezkoentzako lehentasunezko sare bat sortzea. Modu horretan, gune seguruagoak eta atseginagoak lortzearekin batera, ibilgailu pribatuen erabilera murriztuko da eta, horrela, baita zirkulazioaren, kutsadura akustikoaren eta ingurumenaren arazoak ere. Eskola bide seguruak sortzea da lehentasunezko beste arloetako bat, eta lotura zuzena du oinezkoentzako sareekin. Eskola bide seguru horien bidez, haurrek beren mugikortasunaren ardura hartu, eta ibilgailua albo batera utzita lekuetara oinez joatearen garrantzia ikasi dute, bide batez kontzientzia hori garatuz.

Bestalde, mugikortasunaren azterketa planifikazio tresnetan, batez ere HAPOn, sartzeko beharrari buruz eztabaidatu dute; izan ere, HAPOn hainbat azterketa eta diagnosi sartu behar dira hiri mugikortasun ordenatua eta iraunkorra lortzeko. Halere, Getxoko zenbait guneren hiri dentsitate txikiak, herritarrak zahartzen joateak eta auzo batzuek bizitoki funtzioa baino ez izateak zaildu egiten dute mugikortasuna hobetzeko jarduerak burutzea. Edozein modutan, uste dute etorkizuneko HAPOk eta Hiri Mugikortasun Iraunkorreko Planak (HMIP) oso kontuan izan behar dituztela kontu horiek.

Bukatzeko, parte hartzaileek etorkizuneko HMIPrako erabilgarriak izan daitezkeen proposamenak egin dituzte. Oinezkoentzako sare edo eskola bide seguruak sortzeari dagokionez, bizikletaz zein oinez modu egokian eta pertsona guztiak errespetatuz ibiltzeko herritarrak heztearen garrantzia azpimarratu dute. Aurrekoak bezain garrantzitsuak diren beste lan esparru batzuekin harremana duten zenbait ideia ere aipatu dituzte: adibidez, udalerrian autobus linea batzuk sortzea garraio publikorik ez duten lekuak lotzeko eta bidegorri sarea amaitzea eta egoera onean mantentzea.

2. MAHAIA: IBILGAILU PRIBATUA, APARKAMENDUA, GARRAIO PUBLIKOA ETA ZAMALANAK

2. mahaian 4 proposamen landu dituzte. Honako hauek dira parte hartzeek gehien komentatu dituzten iritziak:

Lehenengo eta behin, AAZren tarifa sistema gainerako aparkamendu azpiegiturekin koordinatzeari buruz hitz egin dute, eta kalean autoak txandakatzeko sistema on bat ezartzearen garrantzia nabarmendu dute, auzoetako saltoki guneei mesede egiteko. Arazoa da herritar asko era horretako neurrien kontra egon daitezkeela, autoa kalean uzteko ordaindu egin beharko delako.

Ondoren, 30 km/h-ko gunek ezartzearen indarguneei eta zailtasunei buruz eztabaidatu dute. Aldeko puntu gisa azpimarratu behar da kutsadura akustikoaren arazoak murriztuko lituzkeela eta kaleak seguruagoak eta atseginoagoak izango liratekeela. Aldiz, orduko 30 kilometroko gunek ezartzeak zirkulazio arazoak eragin ditzake, are gehiago noranzko bakarreko bideak dauden guneeetan (Algortan, esaterako).

Hirugarrenik, Algortan sartzeko eta Algortatik irteteko zirkulazioa hobetzeko neurriei dagokienez, adierazi dute beharrezkoa dela diagnosi sakonagoa egitea, ugariak baitira arazo horretan eragiten duten eta irtenbide egokia aurkitzeko kontuan izan behar diren faktoreak.

Azkenik, metro geltokien irisgarritasuna hobetzeari buruz, esan dute geltokiek oro har araudia betetzen duten arren badirela irisgarriago izateko hobetu beharko liratekeen batzuk (Aiboako geltokia, adibidez), horixe eskatzen baitute inguru horietako bizilagunek. Horrekin batera, azpimarratu dute geltokiek irisgarritasun arauak bete behar dituztela baina, aldi berean, sartzeko eta irteteko eroak eta seguruak izan behar direla eta ongi argiztatuta egon behar dutela.

Egindako proposamenen artean nabarmentzekoak dira garraio publikoarekin lotutako batzuk. Hasteko, Bizkaibusen paneletako informazioa hobetzea eskatu dute, baita autobus sarea handitzea ere, garraio publiko zerbitzua egon dadin, besteak beste, hondartzetara. Horrekin batera, autobusentzako erreiak sortzea eskatu dute, garraio publikoaren zerbitzua hobetzeko.

Beste alde batetik, zamalanekin lotutako ideia batzuk aipatu behar dira. Adibidez, mikrobanaketa proposatu dute, azken milia sistemaren bitartez. Zamalanetarako guneeetan zaintza hobetzea ere beharrezkoa dela eta gunek batzuetan sortzen diren arazoak hobetzeko balio dezakeela adierazi dute.

Amaitzeko, motoak alokatzeko sistema bat martxan jartzeko aukera aipatu dute: motoa hainbat lekutan alokatzeko eta erabili ostean beste toki batean uzteko aukera emango luke.

